

Egoitza zentroaren eta erabiltzailearen arteko kontratuaren eredu

Agiri hau kontratu eredu bat da, erakundeei laguntza eman diezaiekeena egoiliarra egoitzara sartzean izenpetu beharreko agiria prestatzeko lanari dagokionez. Kontratuak ezarri beharreko gutxieneko klausulak jasotzen ditu eta beste hautazko klausula batzuk, nahitaezkoak izan ez arren, egoitza plazen kontraturik gehienetan agertu ohi direnak. Erakundeak agiri honetan azaltzen diren klausula guztiak eta horietariko batzuk erabil ditzake.

[] -(n), 20 [] -(e)ko [] -ren [] -(e)an

BILDUTA

Alde batetik, jaun/andrea, erakundearen izenean eta kaleko zenbakian dagoen izeneko zentroaren zuzendari gisa. Eta beste aldetik,jaun/andrea, NAN edo AIZ duena eta..... udalerriko kaleko zenbakian bizi dena.

- Bere izenean eta egoiliar modura, jarduteko eta ekintza honetan parte hartzeko gaitasun osoa izanik.
-IFK duen egoiliar jaun/andrearen borondatezko ordezkari gisa, eta .. izanik (*jarri ahaidetasuna*).
- (*Legezko ezgaitasunik ez badago baina erabiltzaileak zentroan sartzeko onarpen libre eta baliouduna ematea galarazten dion akats kognitiboa badu, normalean pertsona hori zaintzen jardun duen pertsona izango da zentrorra sartzeko kontratua izenpetu behar izango duena*).
- Egoilarraren legezko ordezkari gisa,NAN/AIZ duenjaun/andrea, betiere dokumentu honi erantsitako epaiaren kopiaren arabera.

(*Atal honetan beharrezko laukia markatu beharko da, betiere kontratua izenpetzen duen pertsonaren arabera*).

AZALTZEN DUTE

1. erakundearen helburua dela (zentroaren izena) zentroa kudeatzea; zentroaren administrazio baimena Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailak eman zuenko (data) Foru Arauaren bitartez.

2. Egoilarrak edo, hala badagokio, legezko edo borondatezko ordezkariak zentroan eskaintzen diren instalazioak eta zerbitzuak ezagutzen eta onartzen dituela, bai eta bere funtzionamendua erregulatzen duen Barne Araubideari buruzko Arautegia ere; halaber, onartzen du arautegi horren kopia duela bere esku eta bi aldeek bete behar dutela arautegi hori.

Kontratu honen bitartez, honako EZARPEN hauek jasotzen dira:

LEHENA.- Erabiltzaileak-n (zentroaren izena) sartuko da(e)ko (a)ren(e)an, honelako egonaldi hau izateko:

Mugagabea

Aldi baterakoa,(e)ko (a)ren(e)ra artekoa.

Bi aldeek beren-beregi hitzartzen dute kontratu honen baliozkotasuna eguneko probaldi baten pean egongo dela; epe horretan bi aldeek suntsiarazi ahal izango dute kontratua euren borondatez.

BIGARRENA.- Kontratu honen xedea da zentroak erabiltzaileari honako zerbitzu hauek ematea:

- Alojamentua.
- Egoiarraren zainketa pertsonala, eguneroko bizitzaren oinarrizko jarduerak aurrera eramateko beharrezko laguntza zerbitzuen eskaintza (garbiketa, higiene pertsonala, janzteia, jatekoa...).
- Erabiltzaile bakoitzaren osasunaren premia eta beharrian zehatzekin bat datozen mantenu eta dieta bereziak.
- Arroparen garbiketa eta lisaketa.
- Banakako artapen programa, zentroko profesionalen taldeak prestatua, egoiarraren edota ordezkarien edo senideen laguntzaz.
- Lanbide programak eta gizarte nahiz kultura arlokoak.
- Zentroak zerbitzu osagarriaren bat eskaintzen duenean, zein den zehaztu behar duzu.

Zerbitzuen prestazioa egoiarraren premia eta beharrianei egokituko zaie, haren egoera fisiko eta psikikoa kontuan hartuta.

HIRUGARRENA.- Kontratuaren gaia diren zerbitzuen prestazio modura egoiarrak ordaindu beharrezko prezioa€koa da, gehi une bakoitzean indarrean dagoen BEZ; salneurri hori (zehaztu kuota likidatzeko modua) likidatuko da honako kontu zenbaki honetan:

Prezioa urtero berrikusiko da; gauzak horrela, igoera horren berri eman behar izango zaio alde aurretik egoiarrari edota legezko edo borondatezko ordezkariari.

(KPIri dagokionez, erakunde arduradunak hautatzeko askatasuna izango du ea horrela berrikusiko den ala ez eta, hala badagokio, hori noiz egin behar den.).

Oporrak edo ospitaleratzea direla eta, plaza erreserbatuta dagoenez, (zehaztu denbora tarte horretan zer gertatuko den plazarekin).

Zentroak hileko faktura bat egingo du; faktura hori erabiltzaileak jasotako zerbitzuengatik ordainketarako egingo da eta bertan zerbitzu guztien kostu osoa jasoko da, hau da, hileko prezioa eta aurreko hilean izandako zerbitzu

osagarrien kostua, kontzeptuen arabera desglosatuta.

Egoiarrak eskatzen dituen eta zentroak eskaintzen dituen zerbitzu osagarri guztiak fakturatuko dira eman eta hurrengo hilabetean, betiere "zerbitzu osagarria" kontzeptuarekin eta hileko ordainagiriaren kuotatik bereiziz.

(Paragrafo hori jarri edo ez, betiere zerbitzu osagarriak ordaintzeko modua kontuan hartuta. Edozein kasutan ere, kontratuan islatu beharra dago zentroak kobratzeko aukeratutako era).

Ordainagiriaren banku itzulketaren bat badago eta horrek gastuak eragiten baditu, erabiltzaileak edo ordezkariak ezinbestean ordaindu behar izango ditu hurrengo ordainagirian.

(Klausula hori jarri, baldin eta ordaintzeko eta itzulketa gastuak kargatzeko sistema hori bada).

LAUGARRENA.- Erabiltzaileak edo haren ordezkariak alde aurretik edo egoitzara sartzen denean zentroaren esku jarri behar izango du haren egoera fisiko eta psikikoaren gaineko osasun dokumentazio eguneratua; dokumentazio horrek balio izango du zentroan emango zaizkion zainketak balora daitezen eta zentroko profesionalen taldeak banakako artapenerako lehenengo plana modu egokian presta dezan. Egoiarrak edo, hala badagokio, legezko edo borondatezko ordezkariak honako dokumentazioa aurkezteko konpromisoa hartzen du egoitzara sartzean: gaixotasun kutsakorrik ez duela egiaztatzen duen sendagilearen ziurtagiria, tratamendu eguneratua, gutxienez 3 egunerako medikazioa, harremanetarako pertsonen datuak eta interes berezia izan dezaketen bestelako dokumentuak.

(Osasun arloko aurretiazko borondateei buruzko abenduaren 12ko 7/2002 Legeak, Eusko Legebiltzarrarenak, ezartzen du edozein pertsonak esku-hartze medikoei buruzko zenbait aurreikuspen ezar ditzakeela jaso nahi duen eta jaso nahi ez duen jardun kliniko egokiaren gainean eta bizitzaren amaierarekin zerikusia duten bestelako gaien gainean; hori guztia alde aurretiko borondateen dokumentu batean jaso ahal izango du eta agiri hori Eusko Jaurlaritzaren menpekota den borondate erregistroan gordeko da. Osasun arloko profesional guztiek agiri hori eskatzeko betebeharra dute eta hori pazientearen historia klinikoari erants dakioko. Hori dela eta, egoiarraren zainketaz arduratzen den mediku kolegiatuak agiri hori eskatu behar dio erregistro eskudunari eta historia klinikoari erantsi, betiere zentroko erabiltzailea artatzean kontuan izan beharrezko neurriak bere borondateari egoki dakizkion, egoiarrak bere kabuz erabakitzeke gauza ez den momentuan).

BOSGARRENA.- Zentroaren antolakuntza arazoak edo erabiltzailearen artapen arazoak direla eta, pertsona

hori gelaz aldatu behar dutenean, aurretiaz jakinarazi behar izango zaie berari eta legezko edo borondatezko ordezkariari; horretarako, bada, horren berri emateko alde aurretik finkatutako epea erabiliko da eta jakinaraziko da zein alde hartzen duen bere gain lekualdaketak ekar lezakeen aldakuntza ekonomikoa.

SEIGARRENA.- Zentroak hirugarren bati laga diezaioke kudeaketa, horrek kontratu honen iraungipena eragin gabe. Gauzak horrela, titularitatea eskura dezakeen erakundeak bere gain hartuko du kontratua. Kudeaketaren lagapen hori egoiliarrari edota legezko edo borondatezko ordezkariari jakinarazi behar izango zaie 10 egun lehenago.

ZAZPIGARRENA.- Egoiliarrak berme gordailu gisa honako diru-kopuru hau ordainduko du:€. Diru-kopuru hori egonaldia lehendabiziko egunean ordainduko da. Kontratu hau Barne Araubidearen Arautegian jasotako arrazoiak direla-eta indargabetzen bada eta egonaldia amaitutzat ematen bada, erabiltzaileak bere egunean gordailutako diru-kopurua itzultzeko eskubidea izango du, baldin eta zentroak emandako zerbitzu guztiak ordainduta baditu.

Borondatezko baja egonez gero, gertaera hori zentroko arduradunei jakinarazi behar izango zaie egun lehenago, berme horren kopurua berreskuratu ahal izateko. Probaldia gairatu ezean, zentroak fidantza itzuliko du eta erabiltzaileak edo haren ordezkariak hileko horri dagokion zati proportzionala ordaindu behar izango dute.

Era berean, entitateak alde bakarraren erabakiaz baliogabetu ahal izango du kontratua, betiere Barne Araubidearen Arautegiak ezarritakoarekin bat etorritik.

(Fidantza bat ezartzea ez da ezinbestean bete beharreko alderdia, baina ohiko jarduna izaten da; horrenbestez, kontratuan jaso beharra dago. Halaber, borondatezko bajaren berri emateko epea librea da, baina plaza publikoetarako lekualdaketetan aintzakotzat hartu beharra dago egoera horien errealitatea, egoiliarra ez kaltetzeko ahaleginak eginez plaza horietara lekualdatzean (betiere indarreko arautegiak aintzatetsitako eskubidea den aldetik). (Zentroaren erakunde arduraduna bada erabakitzen duena erabiltzaileak zentroa utzi behar duela, Barne Araubidearen Arautegiak egoera hori eragin dezaketen arrazoiak jaso behar ditu, bai eta hori jakinarazteko modua eta alde aurretiko ohartarazpenerako ezarritako egunak ere).

ZORTZIGARRENA.- Zentroak erantzukizun zibileko poliza bat hitzarturik dauka aseguru etxe batekin; gauzak horrela, poliza horrek erabiltzaileen eta haien legezko edota

borondatezko ordezkarien esku egon behar izango du.

BEDERATZIGARRENA.- Egoiliarra hiltzen bada senitartekorik edo legezko ordezkariarik izan gabe, zentroak ehorzketa duina kudeatuko du, hildakoaren sinesmenekin bat, horiek ezagunak baldin baziren.

(Klausula hori ezar daitekeenari buruzko hurbilpen bat da. Edozein kasutan ere, lekualdaketagatiko nahiz heriotzagatiko bajaren unean egoiliarraren ondasunekin zer gertatuko den jasoko beharra dago).

HAMARGARRENA.- Erabiltzailearen, haren senitartekoen eta erabiltzailearen arduradunen datuak (esate baterako legezko edo borondatezko ordezkariena) datu fitxategi pertsonal batean erregistratuko dira; fitxategi pertsonal hori automatizatu ahal izango da zati batean edo osorik eta zentroa izango da haren erantzukizuna hartuko duena. Zeregin horren helburu nagusia, azken batean, honako hau da: kontratu hau izenpetu ondoren sortutako zerbitzu, eskubide eta betebeharrak guzti-guztiak ematea. Erabiltzaileak edo haien legezko edo borondatezko ordezkariak eskuragarritasun, zuzenketa, ezeztapen edo aurkaritza eskubideak egikartzeko aukera izango dute, betiere datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legeak eta lege horren garapen araudia onesten duen abenduaren 1.720/2007 Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat etorritik.

HAMAIKAGARRENA.- Barne Araubidearen Arautegiari dagokionez, kontratu hau interpretatzean edo aplikatzean sor daitezkeen gorabeherari edo auziei begira, alde kontratugileak Vitoria-Gasteizko auzitegi eta epaitegien pean jartzen dira.

Eta bat datozela adierazteko, alde kontratugileak kontratuaren bi aleren orrialde guztiak izenpetu dituzte ondorio bakar baterako, goiburuan zehaztutako tokian eta egunean.